



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2016/01/22

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bilboko tranbia unidateen barruan makina baliobakotzaileak instalatea eskatu dabe**

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako batzordeak Bilboko tranbia unidateen barruan makina baliobakotzaileak instalatea eskatu dau, Bilbon dagoan Batzar Nagusietako egoitzan egindako bilkuran. Bizkaiko Batzarrak Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako arauz besteko proposamena onartu dau gaur, Bizkaiko Foru Aldundiari eskaera egiteko, Eusko Jaurlaritzaren aurrean “egin beharreko gestinoak” egin daizan, garraibide horretan makina baliobakotzaileak jarteko. Une honetan, Euskotranen geralekuetan baino ezin daitekez baliobakotu txartelak. Ekimenak, Batzarretako EAJ-PNV, PSE-EE, Podemos Bizkaia eta PP taldeen aldeko botoa eta EH Bilduren abstentzinoa lortu ditu, eta, ganera, gonbitea egiten deutso Eusko Jaurlaritzari, txartelak saltzen dituen makinak “aztertu” daizan, “argiakoak” izan daitezana”.

Jesus Isasik (PP), Zigor Isuskiza EH Bilduko batzordekideak gogoratu dauenez, 2007an eta 2009an Bizkaiko Batzarrak onetsitako proposamena defendidu dau, gaur egungo Barik gailuak “txikiak” dirala, eta tranbia barruan ezelango arazorik barik instalau daitekezala esanez. Proposamenak beste gauza bat be gehitzen dau, markesinetan dagozan salmentarako makinaren diseinua hobatzea, Isasiren berbetan “nahasketak sortzen dituelako”.

Batzarretako taldeek adierazo dabenez “denpora asko” igaro da tranbiaren erabiltzaileek txartela baliobakotzeko modua hobatzeko asmoz Bizkaiko Batzarretan hainbat ekimen onartu ziranetik. “Traba egiten dauen edozein elementu baztertu egin behar da”, adierazo dau Mikel Bagan jeltzaleak, eta “aurretik azterlanak” egitearen eta Bizkaiko Batzarrek agindutakoa betetearen aldeko apustua egin dau. Podemos Bizkaia eta PSE-EE taldeen eretxiz, igaro dan denporea “nahikoa” izan da, eta neurria “atoan” jarri beharko litzateke indarrean.

EH Bildu bat etorri da geralekuetan dagozan makinaren diseinua hobatzeko eskatzen dauen proposamenaren parteagaz, eta ez bakarrik bertako bezeroengan pentsauz, baita kanpotik datozenengan pentsauz be, ez dagozalako funtzionetako modura ohituta. Halanda be, ez dira barrukaldean makina baliobakotzaileak jartearen aldekoak, horrek “ilarak” sortu daikezalako txartela baliobakotzeko orduan. “Gure zalantzak daukaguz. Jendeak barneratuta dauka euren txartela geralekuan baliozkotzeko funtzionamenduaren dinamikea”, adierazo dau Isuskizak.

**METRO BILBAOKO TARIFEN IGOERIA: "% 3,55EKOA"**

Saio berean, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako diputatuak, joan dan urtarilaren 1etik aplikau dan Metro Bilbaoko tarifaren igoera azaldu dau. EH Bilduk eskatuta, Aldundiko arduradunak adierazo dau Bilboko lur azpiko trenaren “batez besteko” igoera “% 3,55ekoa” izan dala, eta igoera horretan modu positiboan diskriminatu gura izan dirala ohiko bezeroak eta gizarte izaera daben tituluak erabilten dituenak, metroa aldi behin baino erabilten ez dabenen aurrean. Ganera, “tarifaren igoera gizarte eta ekonomia erespideak kontuan izanda egin da, zerbitzuaren kalidadeari eta galerei arazoizko maila jasangarrietan eustea bermatuz”, esan dau. Igoera ez da bardina izango danontzat. “Fidelizazio erespidea aplikau da, garraibidea gehien erabilten daben erabiltzaileen alde, aldi behingoaren aurrean”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bezero ohikoenak batez besteko igoeraren azpitik geratzen dira. Holan, Reyesek adierazo dauenez, gura beste bidaia egiteko aukera emoten dauen Gazte Txartelak “ez dau igoerarik” izan. Hileko txartelari jagokonez, hiru guneetako batez besteko igoerea “40 zentimokoa” da, hau da, batez besteko igoerea “% 1,32koa” da. Eta 65 urtetik gorakoentzako Gizatransen kasuan, bidaia bakotzak 33 zentimo balioko ditu, hau da, edozein gunerako zentimo bat “baino ez da igo”. Gazteentzako urteko txartelak “% 0,92ko” batez besteko igoerea izan dau. “Laburbilduta, gizarte izaerako beharpen garrantzitsuak dituen prezioak dira, aurrekontuak zorrotz egin behar diran garai honeetan”.

Diputatuak adierazo dauenez, herritarrak jakin behar dau Metro Bilbaok izoztu egin ebazala tarifak 2015ean eta, 2013an eta 2014an, igoerak KPIa baino “puntu erdi txikiagoak” izan zirala. Aurtongo igoereak hori be hartu dau kontuan, eta baita inbertsinoak eta mantentze lanak “gero eta handiagoak dirala” be. Ganera, ez da ahaztu behar, galerak eta inbertsinoak ordaintzen dituen herri administrazioek –Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak “erdi bana”– Metro Bilbaok eskintzen dauen zerbitzuaren kalidade mailari eusten jarraitzea gura dabela herritarrek.

Holan, Aldundiko arduradunak jakinarazo dauenez, erakunde biek “136 milioi euro” bideratuko ditue 2016an metrora, Metro Bilbaoren ustiapenaren galerei eusteko –“11 milioi eurokoa”, adierazo dauenez– edo gaur egungo zerbitzua hobatzeko eta 3. linea eregiteko eta martxan jarteko. Reyesek esan dauenez, tarifen igoeraren ondorioz, “milioi bi euro” gehiagoko diru sarrerak lortuko dira.

#### BATZARRETAKO TALDEAK

EH Bilduren ustez, tarifen batez besteko igoerea –“%3,55”– asko eta asko urruntzen da KPIren igoeratik. Jesús Isasi popularraren berbetan, indize horrek, kontsumoaren prezioei jagokenak, ez dau igoerarik izango, “% 0,3ko” jatsiera baino. Isuskizak esan dauenez, Barik zorroagaz egiten dan bidaiak “% 5,2ko” igoerea euki dau, eta hori da erabiltzaile gehienek, “% 53k” erabilten dabena. Super 50 bonoak, lur azpiko trenaren bezeroen “% 8k” erabilten dabena, be igoera berbera izan dau. Isuskizaren berbetan, igoera hori ez da “igoera txikia, ia hutsaren parekoa”. “Herritarren boltsikoaren flotazinoko lineari erasotzen deutso”, gehitu dau Isasik. Metro Bilbaoren datuak kontuan izanda erabiltzaileen kopurua “estankau” baldin bada, igoera horrek “ez dauka zentzurik”, lur azpiko trenaren erabilera handitzeko eta sustatzeko orduan, adierazo dabe Podemos taldeko lekuetatik.

Joaquín Colmenerok (PSE-EE), bere aldetik, ordezkeri popularraren “demagogia” kritikau dau, alde batetik igoerea kritiketan dauelako, eta bestetik “eten barik”, hobakuntzak eskatzen ditualako, 3. linea eregitea, adibidez. Bere ustez, “garrantzitsuena ohiko bezeroak eta gizarte arloko erespideetan oinarrituta dagozan txartelak kontuan izan dirala da”.

Mikel Baganen (EAJ-PNV) ustez, igoerak, Administrazioek, Bizkaiari “galera kontrolaua izango dauen kalidadeko” garraioa eskintzeko egin dabena apustuari erantzuten deutso. “Batzuetan ezinbestekoa da tarifak igotzea, baina aurreko urteak be kontuan izan behar dira. Ahal danean, tarifak dagozan moduan izten dira, baina batzuetan ezinbestekoa da igotzea”, esan dau. Beretzat oso albiste ona da igoerak “eragin txikiagoa” izatea “babestu behar diran” kolektiboetan eta “ohiko” erabiltzaileengan.

**EZ DA “BEHARREZKOA” URTEKO GAZTE TXARTELA BIZKAIBUSEN**



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Beste alde batetik, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako diputatuak, Podemos Bizkaia eskatutako beste agerraldi bati erantzunez, esan dau bere sailaren eretxiz ez dala beharrezkoa unibersidadeko ikasleentzako urteko txartela ezartea Bizkaian, UPV/EHUren Leioako campusera joan behar dabenentzat, batez be. Gai hori talde morearen eskutik heldu da batzordera, “change.org” plataforma digitalean 6.000 sinadura baino gehiago jaso dituan herritarren eskaria dala eta.

Reyesek esan dauenez, talde horren beharrak “beteta” dagoz daborduko hileko Gazte Bizkaibus tituluagaz. Urte osokoa “ez da ezinbesteko beharra”, esan dau. 26 urtetik beherako Barik txartelak bidaiaren kostuaren “% 50eko” beherapena eragiten deutso erabiltzaileari, Barik creditrans bategaz alderatuta, eta “% 70ekoa” joaneko billeteagaz alderatuta. Unibersidadera doazan lineatan erabiltzaileen “% 20k” erabilten dau, eta ganerako lineatan “% 5eko” erabilerea dauka.

Bizkaibusek egunero UPV/EHUen eskintzen dauen zerbitzuari jagokonez, gogoratu dauenez, hasi barri dan unibersidadeko ikasturtean, Bizkaibuseko “24 linea” heltzen dira egunero Leioako campusera, klasea dagoan egunetan, “6.500 bidaiari”. Campusera heltzen diran pertsona bitik bat Bizkaibusen heltzen da. “30 autobus baino gehiago” ibiltzen dira, gehienak ahalmen handikoak. Reyesen eretxiz, datu horreek “gai horri buruzko argi gehiago emoten dabe, eta Leioako campuseko ikasle eta behargin guztiei ahalik eta zerbitzu hoberena eskintzeko Bizkaibusek egiten dauen esfortzu handia hobeto ezagutzeko aukerea emoten deuskue”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
22/01/2016

## **Las Juntas Generales de Bizkaia reclaman la instalación de canceladoras en el interior de las unidades del tranvía de Bilbao**

La comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio ha pedido hoy, en su reunión en la sede bilbaína de las Juntas Generales, que se instalen canceladoras en el interior de las unidades del tranvía de Bilbao. La Cámara foral vizcaína ha aprobado una proposición no de norma presentada por el grupo Popular Vizcaíno (PP) para instar a la Diputación foral de Bizkaia a que realice las “gestiones oportunas” ante el Gobierno Vasco para la colocación de validadoras dentro de las unidades de este transporte. Actualmente, Euskotran sólo permite cancelar el billete en las paradas. La iniciativa, que ha contado con el apoyo de los grupos junteros de PNV, PSE-EE, Podemos Bizkaia y PP, y con la abstención de EH Bildu, invita además al Ejecutivo vasco a “revisar” el diseño de las máquinas expendedoras de billetes para que estas sean “más claras”.

Jesus Isasi (PP) ha defendido su propuesta, acordada en la Cámara vizcaína en los años 2007 y 2009 según ha recordado después el apoderado de EH Bildu Zigor Isuskiza, atendiendo a que los actuales dispositivos de Barik son “pequeños” y pueden ir instalados sin mayor problema dentro de los tranvías. En la proposición se apuesta también por que se mejore el diseño de las máquinas expendedoras de las marquesinas que, según Isasi, “da lugar a confusión”.

Los grupos junteros han advertido que ha pasado “mucho tiempo” desde que similares iniciativas parlamentarias se acordaron en la Cámara vizcaína para mejorar la forma en la que el usuario del tranvía cancela su billete. “Cualquier elemento de distorsión hay que eliminarlo”, ha señalado el jeltzale Mikel Bagan que ha apostado por que se elaboren los “estudios previos” y se cumpla el mandato del parlamento vizcaíno. Para Podemos Bizkaia y PSE-EE el tiempo transcurrido ha sido “suficiente” para que la medida se implante de manera “inmediata”.

EH Bildu se ha mostrado en sintonía con la parte de la proposición que solicita la mejora en lo que respecta al diseño de las máquinas ubicadas en las paradas, no sólo pensando en el cliente local sino también en el que nos visita, que no está tan familiarizado con la operativa. Sin embargo, no son tan partidarios de colocar validadoras en el interior, ya que esto podría provocar “colas” a la hora de cancelar el billete. “Tenemos nuestras dudas. La gente tiene asumida la dinámica de funcionamiento de validar su billete en la parada”, ha sostenido Isuskiza.

### **LA SUBIDA DE TARIFAS DE METRO BILBAO: UN "3,55%"**

En la misma sesión, el diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha explicado la subida de tarifas de Metro Bilbao aplicada desde el pasado 1 de enero. A instancias de EH Bildu, el responsable foral ha señalado que la subida “media” del suburbano bilbaíno se ha situado en el “3,55%” y , en ella, se ha querido discriminar positivamente a los clientes habituales y a los que utilizan títulos de transporte más sociales, en detrimento de los



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

usuarios ocasionales. Según ha explicado, “el incremento de tarifas se ha hecho conjugando el criterio social y el económico, al garantizar la calidad del servicio y el mantenimiento del déficit en niveles razonables y soportables”. La subida no será igual para todos. “Se ha aplicado un criterio de fidelización, al favorecer al cliente intensivo frente al ocasional”.

Por debajo de la subida media, se quedan los clientes más habituales. Así, Reyes ha precisado que la Gazte Txartela, que permite viajes ilimitados, “no se ha subido”. Por su parte, en el billete Mensual, el incremento medio en las tres zonas es de “40 céntimos”, lo que supone una subida media del “1,32%”. Y la Gizatrans -mayores de 65 años-, el coste por viaje se sitúa en los 33 céntimos, subiendo “únicamente” 1 céntimo para cualquier zona. A su vez, el billete anual joven ha experimentado una subida media tarifaria del “0,92%”. “En definitiva, son unos precios con importantes descuentos de carácter social, en un momento de rigor presupuestario”.

El diputado ha puntualizado que el ciudadano debe saber que Metro Bilbao congeló las tarifas en 2015 y que, tanto en 2013 como en 2014, subió las mismas “medio punto por debajo” del IPC. La subida de este año obedece a este aspecto y al hecho de que las inversiones y las labores de mantenimiento “crecen”, al tiempo que los ciudadanos quieren que las administraciones públicas que mantienen este déficit y estas inversiones - Gobierno vasco y Diputación “a partes iguales”- conserven los altos niveles de calidad del servicio que ofrece Metro Bilbao.

En este sentido, el responsable foral ha informado que ambas instituciones destinarán en 2016, “136 millones de euros” al metro, bien para sostener el déficit de explotación de Metro Bilbao, el cual lo ha cifrado en “11 millones de euros”- o bien para mejorar el servicio actual o construir y poner en marcha la línea 3. Reyes ha cifrado que la recaudación por el incremento de las tarifas supondrá “dos millones de euros” de todo este montante.

## GRUPOS JUNTEROS

Para EH Bildu la subida de tarifas -3,55%- “se aleja de manera desproporcionada del incremento del IPC “ que el popular Jesús Isasi ha cifrado en un decremento del “0,3%”. Isuskiza ha destacado que el viaje con la Barik monedero supone un incremento del “5,2%” y afecta a la mayoría de usuarios, al “53%” de los mismos. El mismo incremento se ha dado en el Super 50 que afecta al “8%” de los clientes del suburbano. Para Isuskiza, este incremento no es una subida “ínfima, ni irrisoria”. “Va en la línea de flotación del bolsillo del ciudadano”, ha añadido Isasi. Si según datos de Metro Bilbao, los usuarios se “han estancado”, esta subida “no tiene sentido” para incrementar y fomentar el uso del suburbano, han dicho desde las filas de Podemos.

Por su parte, Joaquín Colmenero (PSE-EE) ha criticado la “demagogia” del representante popular al criticar la subida por un lado, mientras pide “reiteradamente” mejoras por otro, como la construcción de la Línea 3. Cree que “lo más importante es que se haya tenido en cuenta a los clientes habituales” y a los billetes que estén basados “en criterios sociales”.

Para Mikel Bagan (PNV), la subida obedece a una apuesta de las Administraciones por dotar a Bizkaia de un transporte “de calidad con déficit controlado”. “A veces es inevitable una subida de tarifas, pero hay que tener en cuenta años anteriores. Cuando se puede, se contienen las tarifas, pero a veces es inevitable subirlas”, ha dicho. Ha celebrado que el incremento afecte también “en menor medida” a colectivos que “hay que proteger” y a los usuarios “habituales”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## NO ES “PERENTORIO” EL BILLETE JOVEN ANUAL EN BIZKAIBUS

Por otro lado, el diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha señalado en otra comparecencia solicitada en este caso por Podemos Bizkaia, que su departamento no ve necesaria la implantación de una tarjeta anual en Bizkaia para estudiantes universitarios, especialmente para los que deben viajar hasta el campus de Leioa de la UPV/EHU, asunto que ha llegado a la comisión de la mano de la formación morada a raíz de una petición ciudadana recogida en la plataforma “change.org” que cuenta con más de 6.000 firmas.

Reyes ha señalado que las necesidades de este colectivo ya están “cubiertas” con el título mensual Gazte Bizkaibus. El anual “no es una necesidad perentoria”, ha dicho. La Barik para menores de 26 años ahorra a su usuario un “50%” del coste del viaje respecto a una Barik Creditrans y un “70%” respecto al billete ocasional. En las líneas que van a la universidad es utilizado por el “20%” de sus usuarios y su penetración se queda en un “5%” en el resto de líneas.

En cuanto al servicio que Bizkaibus presta diariamente a la UPV/EHU, ha recordado que durante el curso universitario que acaba de empezar, “24 líneas” de Bizkaibus, acceden en un día lectivo al campus de Leioa, con un total de “6.500 viajeros”. Una de cada dos personas que acceden al campus, lo hacen en Bizkaibus. Circulan “más de 30 autobuses”, mayoritariamente de alta capacidad. Datos que, según Reyes, “aportan más luz sobre este tema y que nos permite conocer con más exactitud el esfuerzo tan importante que Bizkaibus realiza para ofrecer el mejor servicio a todos los estudiantes y trabajadores del campus de Leioa”.